


II. UNIBERTSITATEA + ENPRESA EUSKAL ESTRATEGIA

2022-2026



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



XXI. mendeko Euskadi eraikitzeko motorra da unibertsitate eta enpresaren arteko lankidetzak. Unibertsitateek, enpresek, instituzioek eta beste eragile batzuek beren erantzukizuna partekatzen dute eta euskal gizartearen garapena lortzen laguntzea dute azken helburua.

Euskal unibertsitate-sistema indartzearen aldeko Eusko Jaurlaritzaren apustu bat da estrategia hori. 2017-2022ko unibertsitatea eta enpresaren arteko I. strategiaren bi helburu nagusiei, kualifikazio handiko talentuaren prestakuntza eta ezagutza sortu eta transferitzea, eusten die eta unibertsitatea + enpresa euskal ereduaren jarraipen eta ebaluazioari lotutako hirugarren helburu bat gehitzen du. Garatzeko, lehentasunezko bost jarduerari eta hamar ekintza ezartzen dira, baita helburuak lortzeko prozesuan strategiari laguntze aldera bideratutako gobernantza eredu bat ere.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 4a

Edukia

1. Atarikoa	7
2. Lankidetzan finkatutako markoa.....	9
3. <i>2017-2022ko Unibertsitatea-Enpresa I. Estrategiaren</i> emaitzak.	15
4. Helburu nagusiak, lehentasunezko jarduera-ildoak eta jarduerak formulatzea.	23
5. Gobernantza-ereduak.....	31

Ilustrazioen aurkibidea

1. Ilustrazioa: Euskal Unibertsitate-Sistemaren planetarako erreferentzia-markoak dira estrategiak...	11
2. Ilustrazioa: <i>2030eko Zientzia, Teknologia eta Berriztapeneko Euskal Planaren</i> zutabeak.....	13
3. Ilustrazioa: <i>2017-2022ko unibertsitate eta enpresaren arteko I. Euskal Estrategiaren</i> mugarriak. ...	15
4. Ilustrazioa: <i>2017-2022ko unibertsitate eta enpresaren arteko I. Euskal Estrategiaren</i> eraginak.	21
5. Ilustrazioa: <i>2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategia</i> osatzen duten elementu nagusiak.....	24
6. Ilustrazioa: <i>2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren</i> lehentasunezko jarduera-ildoak.	26
7. Ilustrazioa: <i>2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren</i> eraginak..	30
8. Ilustrazioa: <i>2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren</i> eragile eta plan nagusiak	32

Taulen aurkibidea

1. Taula: <i>2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren</i> helburuak	25
2. Taula: <i>Estrategiaren</i> gobernantza-eredua.	31

1. Atarikoa

2017ko martxoan, *Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zuria* onartu zuen Europako Batzordeak. Europa eraikitzeko prozesuan erreferentzia den agiri horretan egiaztatzen denez, “gazteek hezkuntza eta prestakuntza onena jasoko duten Batasun bat behar da eta, horretaz gain, ikasi ahal izateko eta kontinente guztian lana aurkitzeko aukera izan beharko dute gazte horiek”. Konpromiso horren ondorioz, Goteborgeko Goi Bilera Sozialean eskubide sozialen zutabea ezarri zen eta “hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza iraunkorra, inklusiboa eta kalitatea jasotzeko pertsona ororen eskubidea” lehen printzipio gisa finkatu zen.

Helburu horrekin bat etorrira, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak *2017-2022ko Unibertsitate eta Enpresaren arteko lehen Euskal Estrategia* jarri zuen, 2017ko ekainean, martxan, ezagutza transferitzearen arloan euskal unibertsitate-sistemaren eta enpresa-eremuaren arteko lankidetzaren sustatzeko asmoz.

2022ra arteko lan-horizontean, unibertsitate-politika berritzaileak, Alternantziako Unibertsitate Prestakuntza Dualaren Euskal Markoa esate baterako, artikulatzeko izan da lehen Euskal Estrategia lagungarri. Halaber, eragile desberdinen arteko lankidetzaren marko bat, arlo horretako helburu europarrekin bat datorrena, sustatu du. Estrategiaren ondorioz Unibertsitatea + Enpresa kontzeptua garatu da; izan ere, kontzeptu horrek administrazioaren, unibertsitate-eragileen eta enpresa-eremuko eragileen arteko lankidetzaren osagarritasuna bistaratzen du.

Gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuna eman ahal izateko funtsezkoa da eragileen arteko lankidetzaren eta adostasun handia dago gizartean gai horri buruz. Administrazioa, unibertsitate-erkidegoa eta enpresa-eremua, ahalegin partekatu batean, bakarka lortu ezinezkoak liratekeen erronkei aurre egiteko gai dira.

Illo horretan, eta epe erdi eta luzerako ikuspegi europarrarekin bat etorrira, *2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategiak* goi hezkuntzarako eredu berriak sustatzen ditu. Eredu horietan prestakuntza, ikerketa eta berrikuntzaren arteko loturak ezartzen dira eta lotura horiek gizartearekin lankidetzaren estua izatea eskatzen dute.

Orain arte egindakoaren ondorioetan ikus daitekeenez, Euskadin unibertsitate eta enpresaren arteko harremana inoiz baino estuagoa izatea lortu da; izan ere, euskal unibertsitate-ikasleen prestakuntza eta enplegarritasuna hobetu dira. Halaber, estrategia horri esker gehiago ezagutzen dira ordezkaturako sektore bakoitzean nagusi diren dinamikak eta irakaskuntzaren, enplegarritasunaren eta ezagutza transferitzeko prozesuaren arteko lotura indartu da.

2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategia horren bidez hartzen da unibertsitate eta enpresaren arteko lankidetzaren eremuko eragile guztien konpromisoa eta laburbilduta jasota geratzen da. Unibertsitatea + Enpresa ereduko lankidetzan haratago joateko borondatea finkatzen du Euskadiko Unibertsitate Kontseiluak eta, horretarako, ondorengo jarduerak gauzatuko dira: alternantziako euskal unibertsitate-prestakuntza duala indartuko da, Euskadiko Lanbide Heziketako eta unibertsitate-sistemen arteko lankidetzak sustatuko da, bikaintasuneko ikerketak ekoizpen-sisteman duen eragina bultzatuko da, administrazioaren, goi hezkuntzako instituzioen eta eremu profesionalaren arteko elkarte estrategikoak sustatuko dira eta nazioarteko lankidetzak sustatuko da.

Unibertsitate + Enpresa klabeko lankidetzak funtzio nabarmena izango du ikasleen enplegarritasuna proiektu instituzionalaren eta prestakuntza-proiektuaren ardatza izango den euskal unibertsitate-sistema bat eta goi hezkuntzako euskal hezkuntza-eskaintza bat eratzeke prozesuan.

Jokin Bildarratz Sorron

Hezkuntzako sailburua

2. Lankidetzan finkatutako markoa

Unibertsitate eta enpresaren arteko harremana indartzea da Hezkuntza Sailak 2020-2024ko legegaldi honetarako duen konpromiso estrategikoetako bat eta, horretarako, ondorengo bideak erabiliko da: unibertsitate-prestakuntza duala, LH + Unibertsitatea prestakuntza, agenteak klusterizatzea helize laukoitzaren klabean eta etorkizunari begirako euskal gizartearen aurrerapena zehaztuko duten hiru trantsizioen (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta sozio-sanitarioa) inguruko nazioarteko lankidetzak.

Unibertsitatea + Enpresa euskal markoak administratuzko sustatutako politika publikoak, unibertsitate-bikaintasuna era eremu profesionaleko adituen esperientzia eta ezagutza konbinatzen ditu eta horrela sustatuko dira haien eginkizunean bikainak diren ingurune eta pertsonen arteko elkarrekiko ezagutza eta lankidetzak.

Laburbilduta, hiru izan dira marko estrategiko horren funtsezko elementuak:

- (1) alternantziako unibertsitate-prestakuntza dualaren garapen zabala;
- (2) Hezkuntza- eta transferentzia-proiektu eta programa bateratuak artikulatzea;
- (3) Gai eta zentzuen inguruko klusterizazioa;

Klusterizazio-prozesuak, hots, gai-multzoen araberrako taldekatzeak, perfil desberdineko goi hezkuntzako euskal zentzuek integratu ditu. Horiek horrela, eragile eta profesionalek osatutako ezagutza-nodoak sustatu dira eta nodo horietatik, elkarrekiko ezagutzaren bidez, lankidetzan eta diziplina-aniztasunean oinarritutako ikuspegi batetik erronka sozialei egiten zaie aurre. Horri dagokionez, 4gune eta KSIgune klusterren garapena aipa daiteke, Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiaren arloko unibertsitate-prestakuntzaren eremuan eta kultur eta sormen-industrien eremuan hurrenez hurren.

Estrategikoki inolaz ere aurreikusitako ezin ziren une historiko konplexuak bizi izan ditu 2017-2022ko denbora-tartean gizarteak. COVID-19ak puntu eta aparteko bat ekarri du politika askotan. Hala ere, salbuespenezko zirkunstantziak bizi izan ditugun arren, eragileen lanari esker proposatutako helburuei egin ahal zaie aurre eta alternantziako prestakuntza-jarduerari eutsi zaio. Horrela aurrera eramandako politiken erresilientzia frogatuta geratu da.


2017-2022ko Unibertsitate-Enpresa I. Euskal Estrategiaren inguruan bost urtetan lan handia egin ondoren, Unibertsitatea + Enpresaren arteko lankidetzak jarraitzearen aldeko kontsentsua dago eragileen artean eta, jarraitzeaz gain, haren helburuetan sakondu behar dela uste dute. Ikuspegi horren ondorioz, politika horiek datorren 2022-2026ko aldi finkatzea eta aurrea egitea ardatzak izango dituen etapa bati aurre egin beharko zaio.

Zalantzarik gabe, hezkuntza, ikerketa eta berrikuntzaren arteko loturak garatzeak emango die ikasleei ezagutza bikaina, zientifiko eta profesionala, konbinatuz graduatzeko aukera, izaera desberdineko eragileen tutoretzapeko ikasketa-aldien bidez eta prestakuntza-ingurune eta herrialde desberdinetan. Hori haien enplegarritasunerako lagungarri izango da. Halaber, lotura hori, azken finean, euskal lehiakortasunaren eta lehiakortasun europarra hobetzearen onerako izango da unibertsitateetan eta enpresa-eragileei begira.

Illo horretan, *2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategia* horrek konpromiso horiek, besteak beste, lortu nahi ditu eta, horretarako, *2017-2022ko Unibertsitatea-Enpresa I. Euskal Estrategiari* jarraipena emateaz gain, estrategia hori finkatu nahi du; izan ere, estrategia horren emaitzek erakusten dutenez, euskal gizartea eraldatzeko eragile dinamizatzaile bihurtu da azken urteetan euskal unibertsitate-sistema eta euskal talentuaren, ikerketaren eta berrikuntzaren garapena eta nazioarteko kokapena apalankatu ditu.

Hezkuntza Sailaren, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen, enpresen eta beste instituzio eta erakunde batzuen arteko lankidetzeta-lanerako erreferentzia-markoa da agiri hori eta hezkuntza- eta garapen-politika europar berriagoekin eta ezagutza zientifikoa sortu eta transferitzeko prozesuarekin zerikusia duten alderdiei lotuta dago.

Bigarren strategiaren denbora-horizontea 2022-2026ko aldia da. Horrela, *2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planaren* eta unibertsitateen plan estrategikoen bidez martxan dauden jarduerak unibertsitateek autonomiari begira egingo dituzten eta etorkizuneko *2023-2026ko Unibertsitate Sistemaren Planean* planifikatuko direnekin osatuko dira; izan ere, agiri hori, besteak beste, hartuko da erreferentziatzat 2023-2026ko Unibertsitate Sistemaren Plana definitzeko orduan.



1. Ilustrazioa: Euskal Unibertsitate-Sistemaren planetarako erreferentzia-markoak dira estrategiak.

2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Estrategia horretan lehenengoaren bi helburu nagusiei, ezagutza sortu eta transferitzeko prozesua eta kualifikazio handiko talentua prestatzea, eusten zaie eta jarduera-ildo berrien jarraipenari, ebaluazioari, proposamenari eta dibulgazioari lotutako hirugarren helburu bat gehitzen da.

Euskadiren garapen sozial eta ekonomikorako palanka bat eratzea da *Unibertsitatea-Enpresa II. Euskal Estrategiaren* azken helburua, euskal gizarte iraunkor, moderno eta zuzen bat eraikitzeko lagungarri izango den testuinguru europar eta nazioarteko batean.

Horretarako, administrazioak, unibertsitateek eta enpresek dagoeneko egin duten lana du estrategia berri horrek abiapuntu eta, ondoren, etorkizunerako helburu eta jarduera-ildoak ezarriko ditu eta goi hezkuntzako politikek eta enplegu-politikek, politika ekonomikoek eta politika industrialek bat egitea, prestakuntzaren eta ezagutza transferitzearen bidez, lortu nahi duten programa eta tresnak proposatuko ditu.

Gainera, jarduera-ildoetako bat da euskal unibertsitate-sistema indartzearen aldeko Eusko Jaurlaritzaren apustuan. Ildo horretan, unibertsitateen bikaintasun zientifikoa eta gure enpresa eta instituzioen oraingo eta geroagoko premiak hartzen ditu kontuan.

Estrategia hori ez dela euskal unibertsitate-sistema etorkizunean aurrera eramateko ardatz bakarra nabarmendu behar da; izan ere, funtsezko helburuei, ikerketari eta prestakuntzari, era harmonikoan eman nahi die euskal unibertsitate-sistemak arreta, Euskadin gizarte osoaren eskura egongo den eta, haren erronkei ez ezik, gizarteak planteatzen dizkion erronkei ere erantzuna emango dien goi hezkuntza moderno eta kalitateko bat lortzeko prozesuan urratsak emateko.

Bestalde, estrategia hori dokumentu ireki bat da eta ikuspegi zehatzago bat, planaren gobernantza-organoen bidez, egitearen zain planteatzen dira funtsezko gai batzuk, bizitza profesionalean zehar unibertsitate-prestakuntzaren eredia esate baterako,


Horretarako, administrazioa, unibertsitateak eta euskal enpresa eta instituzioak lankidetzan aritzeko marko bat proposatzen da. Marko horrek laguntza emango dio euskal unibertsitate-sistema modernizatu eta hobetzeko prozesuari eta, horretaz gain, bultzada bat emango dio gizartea aurreratu eta modernizatzeko prozesuari.

Euskal gizartearen bilakaera demografikoa elementu baldintzatzailea dela uste du estrategia horrek. Horregatik, talentua sortzeari, ber kualifikatzeari, erakartzeari eta atxikitzeari lotutako jarduerak definitzea du Unibertsitatea + Enpresa ereduak ardatz. Horiek horrela, toki mailan eta kanpoari begira proposatzen dira jarduerak. Jarduera horiek estrategia horrek erantzun instituzional globalari egin beharreko ekarpen bat dira eta *2030eko Euskal Agendaren* eta, bereziki, *erronka demografikorako 2030eko Euskal Estrategiaren* bidez definituko dira.

Ilido horretan, *2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiak* nazioarteko lankidetzan sakontzen du, *Euskadi Basque Country Nazioartekotzeko Estrategia Markoarekin* bat egiten du eta *Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen unibertsitate-lankidetzaren estrategia* eta unibertsitate europarren proiektuen markoan lankidetzan aritzea sustatzea hartzen ditu erreferentziazat. Bestalde, indarrean egongo den 2022-2026ko aldiaren aurrekusten diren premietan zentratzen da estrategia eta, horretaz gain, kasu honetan 2030era arteko ikuspegi zabalago bat proposatzen du.

Azkenik, *2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean* jasota agertzen diren zientzia, teknologia eta berrikuntzaren aldeko politikari eman beharreko arreta sartzen du berorren definizioan estrategia horrek. 2030eko plan horrek espezializazio-arloetan izandako bilakaera agertzen du eta garapen sozial eta ekonomikoan eragina duten hiru trantsizioak, teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta sozio-sanitarioa, hartzen

ditu erreferentziatzat. 2021-2024ko Garapen Industrialeko eta Nazioartekotze Plana ere bat dator hiru trantsizioak artikulatzeko funtsezko elementu bat direla adierazteko orduan. Horregatik, 2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategia berriak RIS3 arloei eman beharreko lehentasuna eta aipatutako hiru trantsizioei eman beharreko arreta ere sartzen ditu.




2. Ilustrazioa: 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Planaren zutabeak.

3. 2017-2022ko Unibertsitatea-Enpresa I. Estrategiaren emaitzak.

Hezkuntza Sailak sustatutako 2017-2022ko unibertsitate eta enpresaren arteko I. estrategia publiko egin zuen Iñigo Urkullu lehendakariak 2017ko ekainean. Estrategia hori Unibertsitatea + Enpresa ardatzean 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planaren jarduera-ildoak definitzeko izan da lagungarri.

Aurreikusitako epea pasa ondoren, lehen strategiaren jarduera guztiei, guztiz edo partzialki, ekin zaie eta lortutako emaitzek helburuetan funtsezko aurrerapenak gertatu direla adierazten dute.



3. Ilustrazioa: 2017-2022ko Unibertsitatea-Enpresa I. Euskal Estrategiaren mugarriak

Ondoren lehen estrategia horretan planteatutako 15 jardueretako bakoitzari begira lortutako emaitzen laburpen bat jasotzen da:

1. ekintza: *Estrategia aurrera eramatea.*

- Hiru gobernantza-mailak artikulatu dira eta, horretarako, bilera eta foroak era sistematikoa eginez garatu da estrategia;
- *2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planak* bere definizioan Unibertsitatea + Enpresa ardatza gehitu du.

2. ekintza: *Fakultate eta eskolen klusterizazioa.*

- Unibertsitate-prestakuntzako bi kluster jarri dira martxan: 4gune –Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologian ematen du prestakuntza eta 11 fakultate eta eskola eta SPRI, Innobasque eta Basque Industry 4.0 integratzen ditu– eta KSIgune –kultura eta sormen-industrialetan ematen du prestakuntza eta 23 fakultate, eskola eta goi hezkuntzako zentro integratzen ditu–;
- Eremu espezifikoaren gaineko gaitasunen mapak sortu dira: 4.0 Industrian Prestakuntzako, Ikerketako eta Transferentziako gaitasunen mapa –272 gaitasun, 128 prestakuntza-programa eta 128 ikerketa-programa Euskal Unibertsitate Sistemari (EUS)–; Kultura eta Sormen Industrietako gaitasunen mapa –189 gaitasun identifikatu dira: 125 prestakuntza-gaitasun, 56 ikerketa eta 8 institutu–;
- “Material and energy flows in a circular region” Megaprojects programan, SIEMENS GAMESArekin eta Aalborg-eko Unibertsitatearekin lankidetzan, hartu da parte. Halaber, Enpresa + Unibertsitatearen eta “Knowledge Transfer Partnerships” arloetan ari izan da Galesekin lankidetzan;
- “Joint Initiative” Adimen Teknologikoko Laborategia sortu da, euskal RIS3-ren eremu desberdinetan joerak, aukerak eta garapen teknologikoen nitxoak antzemateko asmoz.

3. ekintza: *Unibertsitatea-Enpresa aipamenak.*

- Unibertsitate-titulazioetarako prestakuntza duala aitortzeko protokolo bat eta kalitate dualaren zigilu bat garatu ditu Unibasq-ek- Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitate Agentziak;
- 47 unibertsitate-titulazio ofizialak eman zaie aitortza.

4. ekintza: *Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua unibertsitate-prestakuntza dualaren eremura egokitzea.*

- Eremu desberdinetatik sustatu da unibertsitate-prestakuntza dualerako kontratua Langileen Estatutuaren legean sartzeko prozesua eta arrakastaz lortu da.

5. ekintza: *Unibertsitate eta LHren arteko Lankidetzarako Euskal Markoa.*

- EUSeko unibertsitateekin lankidetzan aritzeko akordioak eraman dira aurrera, Lanbide Heziketako titulazioen kredituak aitortzeko;
- 2+3 ereduaren arabera lehen titulazioak jarri dira martxan;
- Lanbide Heziketako goi graduetan egindako kredituak unibertsitate-titulazioetan baliokidetzeko prozesuak sustatu dira.

6. ekintza: *Unibertsitatea + Enpresa aipamenekin titulazioak aitortzea eta martxan jartzea.*

- Abenduaren 19ko 274/2017 dekretua, Gradu, Master eta Doktoretzaren tituluak lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezarri eta kentzeari buruzkoa, egin da. Dekretu horrek eman zuen geroago irakaskuntza horiek enpresekiko harremanen bektore baten arabera kategorizatze aukera;
- Orain arte, 47 titulaziok –EHUko 11 graduk eta 3 masterrek, Deustuko Unibertsitateko 8 graduk eta 3 masterrek eta Mondragon Unibertsitateko 11 graduk eta 11 masterrek– Unibasq-eren Aipamen Duala lortu dute Ingeniaritza,

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Fabrikazio Digitala, Marketinga, Ikus Entzunezko Komunikazioa edo Soziologia bezalako zenbait arlotan. 600 enpresa baino gehiagok eta 4.800 ikaslek baino gehiagok hartu dute prestakuntza dual horretan parte.

7. ekintza: *Ikasleen prestakuntza euroeskualdean eta Europa mailan.*

- ENLIGHT –EHUn– eta UNIC –Deustuko Unibertsitatean– unibertsitate europarrak jarri dira martxan. Halaber, Mondragon Unibertsitateak EU4DUAL unibertsitate europarraren proiektua aurkeztu du.

8. ekintza: *ikasle egresatuaren jarraipena.*

- Lankidetzan ari izan da Lanbiderekin enplegarritasunari buruzko inkestak diseinatu eta garatzeko prozesuan;
- Zenbait ALUMNI programa sustatu dira: ALUMNI sareak, Mentoring programak, Embajador, Cicerone, etab.

9. ekintza: *Enpresa-Unibertsitatea gelak programa.*

- Enpresa + Unibertsitatea 2 gela jarri dira martxan: AIC gela 4.0. Industrian eta ICC gela Kultur eta Sormen Industrietan;
- Lan-arlo estrategikoetan ari izan da 4.0 Basque Industry-rekin elkarreaginean.

10. ekintza: *eragileen arteko lankidetzak-akordioak.*

- *Enpresen Erronka + Unibertsitatea programa* 4gune klusterraren bidez jarri da martxan. Programa horretan 50 proiektu gauzatu dira eta 500 ikasle baino gehiagok eta 22 enpresak hartu dute parte. Halaber, KSIgune klusterraren bidez eraman da erronken programa hori aurrera eta berorretan 14 proiektu gauzatu dira;
- 4.0. Basque Industry-k euskal industrian gerentzia mailan antzemandako prestakuntza-premietatik abiatuta, *4.0. Industriaren Gerentziarako Programa*

Exekutibo bat diseinatu da eta euskal unibertsitate-sistemako unibertsitate guztiek hartzen dute programa horretan parte.

11. ekintza: *Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren programak eta deialdiak egokitzea.*

- RIS3 Euskadi ikuspegia sartzeko egokitu dira Sailburuordetzaren programa guztiak;
- Unibertsitatea-Enpresa proiektuen deialdi berria diseinatu eta jarri da martxan.
- Bikaintasuna ikertzeko IKUR 2030 programa, epe luzerakoa eta merkatuan eragina izango duena, diseinatu eta jarri da martxan.

12. ekintza: *2019-2022ko Unibertsitate Plana egin eta aurrera eramateko prozesua.*

- Plan honen lehentasunezko bi ardatzetako bat da “Unibertsitatea + Enpresa” ardatza eta kontratu-programen bidez hogeita bat milioi euro baino gehiago erabiliko dira ardatz horretan;
- Doktore-tesiak, instituzio eta enprekin lankidetzan, egiteko prozesua sustatu da;
- Enpresa eta klusterrekin lankidetzan sustatu da Unibertsitatea + Enpresa gelak sortzeko prozesua;
- Ekintzaitzaren eta zerbitzu aurreratuen sistema bat garatu da enpresa eta erakundeentzat;
- Prestakuntza duala EUS osoan hedatzeko prozesua bultzatu da;
- EUSen *Startups* sortu eta aurrera eramateko prozesua lagundu da;

13. ekintza: *Unibertsitatea + Enpresa harremana hedatzea.*

- Unibertsitatea + Enpresa harremana aldi guztian eta etengabe hedatu da. Nazioarteko topaketetan eta beste foru eta txosten batzuetan egin da hedatze hori eta zenbait aitortza lortu dira Europa mailan.
- *University Business Forum* Lisboa Kongresua 2017an;
- DEIA prestakuntza-dualeko topaketa 2017an;
- CD txostena 2018an;


- *Hannover Messe* kongresua 2018an;
- *University Industry Innovation Network* kongresua (UIIN), London, 2018an;
- *University Business Forum* kongresua Bulgaria, 2018an;
- *University Industry Innovation Network (UIIN)* kongresua Helsinki, 2019an;
- Gizarte Kontseiluen Konferentzia eta Unibertsitatea Enpresa Fundazioen sarea (RedFue) lan-mahaia 2019an;
- *University Business Forum* kongresua Brusela, 2019an;
- “*Education Monitor 2019*” aitortza europarra 2019an;
- Prestakuntza dualari buruzko topaketa beste autonomia erkidego batzuekin 2019an;
- *University Industry Innovation Network (UIIN)* kongresua Budapest, 2020an;
- *University Industry Innovation Network (UIIN)* kongresua, *online*, 2021ean;
- Gizarte Kontseiluen Konferentzia eta Unibertsitatea Enpresa Fundazioen sarea (RedFue) lan-mahaia 2021ean;
- “*Prestakuntza duala Kataluniako unibertsitate-sisteman sustatu eta garatzeko prozesua*” txostena 2021ean;
- “*Best Case Study*”, UIIN Awards saria, 2021ean;
- Congreso *University Business Forum* kongresua, Erroman, 2022an;
- Prestakuntza dualari buruzko topaketa Alemaniako, Austriako, Bosnia Herzegovinako eta Serbiako unibertsitateekin 2022an.

14. ekintza: *EUSaren eta BERC-en I + G + I-ri lotutako ekimen ekintzaile berriak sortzea.*

- Ekimen ekintzaileak eta ezagutza eta teknologia transferitzeko ekimenak sortu eta sustatu dira euskal unibertsitate-sisteman eta BERC zentroetan;
- “*Knowledge Transfer Unit*” BCAM-en, 2018an;
- “*Knowledge Transfer Unit*” BC3-n, 2019an;
- “*Neureclinic*” BCBL-n, 2018an;
- BERC zentro guztiek sustatu dute oinarri zientifikoko enpresak sortzeko prozesua eta DIPCetik sortzen den “*Multiverse Computing*” enpresa nabarmentzen da.

15. ekintza: *Enplegurako Plan Estrategikoaren laguntzak.*

- 2017tik aurrera, lan-bizitzarako trantsizioa egiteko 933 beka eta 62 ekintzailatzabeka eman dira, batez beste, urtero.



4. Ilustrazioa. 2017-2022ko Unibertsitatea + Enpresa I. Euskal Estrategiaren eraginak.

Aipatzeko modukoa denez, egin da 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planean Unibertsitatea + Enpresa ardatzaren bitarteko ebaluazioa eta, ebaluazio horrek adierazitakoaren arabera, aginte-taularen adierazleen erdia baino gehiago bete da aztertutako bi urteetan, eta % 25 bi urteetakoren batean bete da. Adierazle horien artean, bestak beste, 2019an titulazio dualetan matrikulatutako ikasleen kopurua eta 2020an sortutako enpresetan kualifikazio handiko enpleguen kopurua nabarmentzen dira.

Jarraipenaren adierazleei dagokienez, Lanbide Heziketako zentroekin lankidetzan egindako ekintzailtza-programetan ikasleen parte-hartzeari buruzko adierazleak bete

direla azpimarratu behar da; halaber, enpresa-izaerarik gabeko erakundeekin egindako kontratuetan parte hartu duen pertsonal irakasle eta ikertzailearen kopurua ere nabarmendu behar da. Horiek horrela, ardatz horretan lortutako emaitzak oso anitzak izan dira.

Halaber, euskal unibertsitate-prestakuntza duala dela-eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak, euskal unibertsitate-sistema integratzen duten unibertsitateek eta Confebask Euskal Enpresarien Konfederazioak 2020ko ekainean batera egin duten adierazpena nabarmendu behar dugu. Unibertsitate-prestakuntzarako eredu baten,- lehentasunezko identitate-elementu bat da Euskadirentzat,- oraingo eta geroagoko garapenaren funtsezko elementua da adierazpen hori.

Adierazpen horretan, besteak beste, funtsezko hiru gai adosten dira. Alde batetik, alternantziako unibertsitate-prestakuntza dualaren euskal ereduaren bereizgarri izan beharko luketen ezaugarriak, praktika konbentzional batzuetan oinarritutako ustezko programa dual bat. Bestetik, enpresa edo erakundeekin lankidetzan proiektu profesionalak (ibilbide duala duten zenbait titulaziotan “enpresetako egonaldia” dute izena) garatzeko integrazio formatiboaren aldiak proposatzeko premia. Azkenik, unibertsitate-prestakuntza dualeko ikasleek enpresetan, lortu behar dituzten unibertsitate-tituluen gaitasunak garatzeari begira, aurrera eraman beharko dituzten eginkizunak helburu hori lortze aldera bideratu beharko direla argi zehazteko premia, behar dena baino kualifikazio txikiagoko lan-aritzeak eta antzekoak ekiditeko.

4. Helburu nagusiak, lehentasunezko jarduera-ildoak eta jarduerak formulatzea.


2017-2022ko Unibertsitatea + Enpresa I. Estrategia garatu izanaren eta jarduera desberdinen bidez lortutako emaitzen ondorioz, Unibertsitatea + Enpresa harremana inoiz baino estuagoa da gaur egun Euskadin, adierazi den legez eredu hori sustatzeko oraindik lantzen jarraitu beharreko elementu asko dagoen arren.

Goi hezkuntzako sistema europarrek, etorkizunean garatzeari begira, hainbat eta hainbat erronkari aurre egin dietela ohartarazten du Europako Batzordeak eta erronka horiei behar bezalako erantzuna eman ahal izateko neurri osagarriak definitzeko berariazko eskaera egiten die administrazio publikoei. Goi hezkuntzako sistema europar orok, neurri handiagoan edo txikiagoan, derrigorrean aurre egin beharreko erronkak dira eta, ondorioz, goi hezkuntzako euskal sistemak ere egin beharko die aurre. Horregatik, erronka horiei erantzun egokia eman nahi dieten jarduera batzuk eramango ditu Hezkuntza Sailak aurrera, administrazioaren, unibertsitateen, eragileen eta, oro har, euskal gizartearen artean lankidetzan aritzeko marko batean eta, beraz, helburu partekatuen testuinguru batean.

Europako Batzordeak, besteak beste, ondorengoak aipatzen ditu Europako goi hezkuntzako sistemek aurre egin beharreko erronken artean:

- Trebakuntza handia exijitzen duten lanbide batzuetan langileen eskasia eta oinarrizko eta zeharkako zenbait gaitasunetan trebakuntza-falta hobetzeko jarduerak sustatzea;
- Goi hezkuntzako instituzioak ekonomiaren berrikuntzan, oro har eta haien eskualdeetan bereziki, egin beharreko ekarpena areagotzera sustatuko dituzten jarduerak bultzatzea;
- Hezkuntza-sistemako osatzaile desberdinen artean beti kontuan hartzen ez den lan-harremanari era bateratuan eta arinean ekitea; besteak beste, gainontzeko hezkuntza-mailekin, Lanbide Heziketarekin esate baterako, dagoen interakzio-falta landuko da.

Gai horiei dagokienez, *2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategia* lau elementu nagusiren bidez artikulatzen da, definitu eta garatzeko: helburu nagusiak, lehenetasuneko jarduera-ildoak, jarduerak eta gobernantza-eredua.



5. Ilustrazioa: 2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategia osatzen duten elementu nagusiak

Helburuei dagokienez, eta estrategia dagoeneko egiten hasi diren jarduerak finkatu eta indartzean zentratzen dela kontuan hartuta, aurreko strategiaren bi helburu nagusiei eusten zaie eta jarraipenari, ebaluazioari, ildo eta jarduera berrien proposamenari eta dibulgazioari lotutako hirugarren bat gehitzen da:

1. helburua: gaitasun handiak eta eremu profesionalaren premiei egokitutako konponente aplikatu bat izango dituen talentua prestatzea;
2. helburua: bikaintasun zientifikoari eta ezagutza hori enpresa-eremuan aplikatzeari lotutako ezagutza sortu eta transferitzea;
3. helburua: strategiaren jarraipena, ebaluazioa eta dibulgazioa eta jarduera berriak proposatzea.

Hiru helburu horiek ondorengo gai nagusien bidez gauzatzen dira:



1. helburua

Ikerketa eta berrikuntzaren arloetako bikaintasuna toki eta euroeskualde mailan sustatuz;

RIS3 espezializazio adimentsuaren estrategia garatzeko prozesua lagunduz;

Ikerketaren eragin soziala sustatuz;

Ekintzailtza-jarduerak eta, batez ere, bikaintasuneko ikerketari lotutako horiek aurrera eramanez;

Enpresen espezializazioa eta nazioartekotzea unibertsitateekin lankidetzan lagunduz;

Gure euskal unibertsitate-sisteman eta BERC bikaintasuneko zentrozen sarean sortutako ezagutzaren transferentzia sustatuz;

IKUR 2030 estrategia aurrera eramateko prozesua lagunduz;

2. helburua

Perfil eta gaitasun egokiak dituzten pertsonak prestatuz;

Eragile akademiko, enpresarial eta sozialen arteko harremanak sustatuz eta egituratuz;

Toki eta euroeskualde mailan prestakuntza emanez, nazioarte mailako lehiakortasuna sustatzeko;

Espezializazioa adimentsua gehituz, gaitasun handiak izango dituen giza kapitala prestatzeko ardatza den aldetik;

Ekintzailtza-eremuari lotutako eragileen arteko lankidetzaren bidez graduatuen enplegarritasuna hobetuz;

Lanbide Heziketarekin lankidetzan aritzeko prozesua sustatuz;

Unibertsitate-prestakuntza bizitza profesionalean zehar sustatuz;

3. helburua

Estrategia eta gizartearen erronkak aurrera eramateko prozesua era sistematikoan monitorizatuz eta ebaluatuz;


Egresatuen ibilbide profesionalaren gaineko ezagutzan sakonduz;

Estrategia eta gizartearentzako ekintzak ikusgarri eginez;

Eragileen arteko lankidetzan eragina duten palanken eta aldagaien arteko ezagutzan sakonduz;

Unibertsitatea + Enpresa testuinguruan trantsizioen eraginak aurreratuz;

Estrategiaren hiru helburu nagusi horiek aurrera eramateko, lehentasunezko bost jarduera-ildo definitu dira:



6. Ilustrazioa: 2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren lehentasunezko jarduera-ildoak.

Helburu eta lehentasunezko jarduera-ildo horiek aurrera eramateko, hamar jarduera proposatzen dira. Jarduera horiek era integralean definitu eta gauzatuko dira, zuzentasunaren, aukera-berdintasunaren eta ikasle guztien generoaren printzipio nagusiei kasu eginez. Halaber, jarduteko printzipio horiek jarduera guztietan identifikatuko dira eta era zehatz eta esplizituan emango zaie arreta.

1. ekintza: Estrategia aurrera eramatea.

- Estrategia 2023-2026ko Unibertsitate Sistemaren Planaren bidez aurrera eramatea;
- Estrategia prestakuntzaren kluster-sarearen bidez era operatiboan garatzea.

2. ekintza: *Unibertsitate-prestakuntza dualaren eta i-dualaren eskaintza sustatzea.*

- Unibertsitate-titulazio dualen eskaintza areagotzea, 1.000 enpresak eta 10.000 ikaslek parte hartuko duten 80 titulaziotara iritsi arte;
- Unibertsitate europarren proiektuekin lankidetzan 10 unibertsitate-titulazio i-dual martxan jartzea.

3. ekintza: *Unibertsitate-prestakuntza dualarako kontratua sustatzea.*

- Kontratua hedatzea, 2026an euskal aipamen dualeko titulazioak ikasten dituzten ikasleen % 50ek kontratu-bidearen bitartez egiteko moduan;
- Prestakuntza dualeko edo alternantziako euskal eredu egokitzea, ordaindutako kontratuari gehien erabiliko den formula gisa lehentasuna emateko.

4. ekintza: *Unibertsitatea + Enpresa proiektuak RIS3 eremuan sustatzea.*

- Euskadiko RIS3ren inguruan toki eta nazioarte mailan aliantzak eginez prestakuntzaren klusterrak indartzea;
- Prestakuntza-klusterren bidez RIS3 erronka-programak sustatzea;
- 2026an, 1.000 ikaslek hartuko dute prestakuntza-klusterrei lotutako erronkak ebazteko prozesuetan parte;
- RIS3 lehentasunezko arloekin konexioan industria-doktoretzen programa indartzea.

5. ekintza: *Unibertsitatea eta enpresa lankidetzan aritzeko testuinguruak indartu eta sustatzea.*

- Enpresa + Unibertsitatea gelak Energiaren, Biozientzien eta Osasunaren arloetara zabaltzea, Enpresa + Unibertsitatea beste bi gela 2026ra arte hornitzearen bidez;
- Unibertsitatea + Enpresa gelen programa, hiru trantsizioekin lerrokatua, EUSen indartzea;
- Alternantziako unibertsitate-prestakuntza dualera egokitutako *Euskal hezkuntza-sistema digitalki eraldatzeko plana* garatzeko prozesua sustatzea;

- Osasun Zientzietako titulazioetan ospitale birtualen euskal sare bat hiru lurralde historikoetan aurrera eraman eta martxan jartzea.

6. ekintza: *Berrikuntza sustatzeko Lanbide Heziketa eta Unibertsitatearen arteko lankidetza bultzatzea.*

- 2023-2026ko Lanbide Heziketako VI. Euskal Planean eta Unibertsitate Sistemaren Planean jarduera-ildo bateratuak identifikatzea;
- LH + Unibertsitatea euskal araudia sustatzea eta LH + Unibertsitatea ibilbide integral dual eta industrial bat doktoretza maila arte bultzatzea;
- LHn eta Unibertsitatean ikasketa dual osagarrien eskaintza zehaztea eta *LH + Unibertsitatea Trebakuntzen* lehen mapa egitea;
- LH + Unibertsitatea prestakuntza dualaren eta i-dualaren eskaintza sustatzea;
- Enpresa-sarean berrikuntza sustatzeko LHren eta Unibertsitatearen arteko lankidetza bultzatzea;
- LH + Unibertsitatea trantsizio- eta ekintzailtza-programak sustatzea;
- Digitalizazio-planak sustatzea;
- *Berrikuntza Estrategikoa LH + Unibertsitatea programa* eta LH + Unibertsitatea prestakuntza akademikoa sustatzeko programa. Horretarako, transferentzia, berrikuntza eta ekintzailtza RIS3 klabeen integratuko dira.

7. ekintza: *Unibertsitate-prestakuntza bizitza profesionalean zehar sustatzea.*

- Euskal unibertsitate-eragileek “Reskilling” eta “Upskilling” prozesuetan parte hartzea sustatzea;
- Unibertsitate-prestakuntzaren euskal eredua bizitza profesionalean zehar artikulatzea;
- Unibertsitate-prestakuntzaren mapa bizitza profesionalean zehar zehaztea: unibertsitate-eta enpresa-eragileen arteko lankidetza;

8. ekintza: *RIS3 lehentasunezko arloetan nazioarte mailan lankidetzan aritzeko prozesua sustatzea.*

- Euskadi Basque Country- RIS lehentasunezko arloak- programa martxan jartzea.
- Mugaz haraindiko laborategien sarea indartzea;


- Nazioarte mailako Unibertsitatea + Enpresa laborategien eta gelen sarea artikulatzea. Artikulatze hori gauzatzeko, RIS3 lehentasunezko arloei emango zaie arreta.

9. ekintza: *IKUR 2030 Programa sustatzea EUS Ekosisteman.*

- Eragin zientifikoa, teknologikoa eta enpresariala izango duen egiturazko aldaketa bat Euskadin apalankatzea, IKUR ibilbide luzeko lau ikerketa-ekimen enblematikoak sustatzearen bidez;
- IKUR eta abanguardiarako ezagutza zientifikoa oinarri zientifikoko enpresa bihurtzeko gai izango diren enpresak konektatzea. Horretarako, aliantzak sortuko dira IKUR eremu bakoitzean;
- IKUR zientziako talentu espezializatuaren prestakuntza-programak artikulatzeko prozesua prestakuntza-klusterretan sustatzea.

10. ekintza: *Unibertsitate eta Enpresaren arteko lankidetzarako euskal behatokia sustatzea.*

- Unibertsitate eta enpresaren arteko lankidetzarako euskal behatokia, Unibasq-ekin lankidetzan, sortzea;
- Unibertsitate + Enpresa ereduaren aurrerapenei, joerei eta emaitzei buruzko bi urteko txosten bat sortzea;
- Unibertsitatea + Enpresa euskal ereduak toki eta nazioarte mailan hedatzea.



7. Ilustrazioa: 2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren eraginak.

5. Gobernantza-ereduak

Berorren jarraipena eta aurrera eramateko prozesua bermatzeko, gobernantza-eredu batzuk ditu estrategia horrek. Hiru maila antolatu dira: strategiaren garapena lideratzeaz arduratzen den strategiaren maila markoa; jarraipena eta jarduera-ildo berrien proposamena koordinatuko dituen maila estrategikoa, eta jarduerak aurrera eramateko prozesua eta jarduera berrien proposamena sustatuko dituen gauzatze-maila.

	Maila markoa	Maila estrategikoa	Gauzatze-maila
	Euskadiko Unibertsitate Kontseilua	2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiarako Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko Lan Talde Iraunkorra	<ul style="list-style-type: none"> Ingeniaritzan, Zientzian eta Teknologian prestatzeko Euskadiko 4GUNE klusterra Kultur eta Sormen Industrietako KSIgune klusterra
Helburuak	Estrategiaren lidergoa	Estrategiaren jarraipena	Estrategiaren jarduerak gauzatzea
Berezko kideak	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kideak; Confebask; 	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea; Confebask; Unibasq-eko zuzendaria; Euskal unibertsitate-sistemako errektoretza-taldeetako ordezkariak; 	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria; Confebask; Dekanotzetako eta Zuzendaritzetako ordezkariak; Pilotatze-taldeetako ordezkariak; Euskampus (Idazkaritza Teknikoa);
Jarduerak	Jarduera berriak egiteko proposamenak eta 2023-2026ko Unibertsitate Sistemaren Plana onartzea	Estrategiaren monitorizatzea eta jarraipena eta jarduera berriak gauzatzeko proposamena Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari egitea	Jarduera berriak martxan jartzea eta jarduera berriak gauzatzeko proposamena Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko Lan Talde Iraunkorrari egitea

2. Taula: Estrategiaren gobernantza-eredua



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



8. Ilustrazioa: 2022-2026ko Unibertsitatea + Enpresa II. Euskal Estrategiaren eragile eta plan nagusiak.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO